

bidegileak



Izaskun Arrue (1927)

Egilea:

AGURTZANE ORTIZ DE LANDALUZE



Izaskun Arrue (1927)

Lehenengo urteak

A ita tolosarra izan arren, sendagile ikasketak amaitu bezain laster Araizko bailarara joan zen lanera. Aralar azpian dagoen Nafarroako bailara ederra da. Sei herri txikiz osatuta dago eta horietako bat da Arribe. Han ezkondu ziren Izaskun Arrueren gurasoak. Ama Argentinan jaioa zen, Pandilen. Amaren gurasoak euskaldunak izan arren, hara joanak ziren, garai hartako jende asko bezala. Argentinan urte batzuk egin ondoren, bere amak sei urte zituela itzuli ziren Euskal Herrira. Hona etorri zenean, ama euskara hutsean mintzatzen zen. Amaren aldeko aita Bedaiokoa

zen, Txindoki azpiko herrikoa eta ama Azkarate bailarakoa, Nafarroakoa.

Izaskun Arrue Arriben jaio zen 1927ko abuztuaren 28an. Sei urterekin joan zen Atalloko eskolara. Garai hartan neskek eta mutilek eskola desberdinetan ikasten zuten. Gaur egun bitxia iruditzen bazaigu ere, hala gerta-



Antonio Arrue eta Agustina Goikoetxea, Izaskun Arrueren gurasoak



Aita, ama, Izaskun, Libe arreba eta Jose Javier neba



Arribe herria



Arribeko Orella baserri dotorean jaio zen Izaskun Arrue



Izaskun Arrue bere amarekin



Donostiako Teresianoetan batxilergoa ikasten ari zenean. Behetik ezkerretik hasita hirugarrena

tzen zen Araizko bailaran ere. Esate baterako, Arribe eta Atallo bailarako bi herri dira. Neskek Atallon ikasten zuten eta mutilek, ordea, Arriben.

Bederatzi urte zituela, batxilergorako sarbidea egin zuen Tolosan. Orduan hamar urterekin hasten ziren umeak batxilergoa ikasten, baina herri txiki haietan ez zegoen horrelakorik egiteko aukerarik Izaskun Arruek adierazi digunez. Beraz, Tolosara joan behar izan zuen. Amona eta osaba-izebak Tolosan bizi arren, garai hartan alde eginak ziren denak Fran-

tziara. Ez dugu ahaztu behar gerra garaia zela. Orduan aitaren lagunen etxean lau edo bost urte egin zituen, batxilergoa amaitu arte.

Ondoren barneko ikasle gisa sartu zen Donostiako Teresianoetan batxilergoa bukatu arte. Ondoren, batxilergoa amaitzen zuten gazte guztiek bezala, «revalida» egin zuen Valladoliden. Hura gainditu beharra zegoen ikasten jarraitzeko.

Horiek egin ostean, magisteritza eta erizaintza ikasi zituen Donostian, biak batera, eta azterketak Valladoliden egiten zituen.

Lehendabiziko lana

Ikasketak bukatuta, jaioterritik lau kilometrorra dagoen Lezaetan herrixkan hasi zen lanean. Larraun bailaran dago eta bost edo sei etxe ditu Lezaetak. Han eskolarik ez zegoez, Diputazioak, Nafarroako toki askotan bezala, «Escuela de temporada» (garaiko eskola) deitzen zituen eskola txikian egon zen maistra. Lezaetako ume horiek eskola txiki hori egon ez balitz, urruneko eskoletara joan beharko zuten. Garai hartako arauaren aurka, Izaskunek Lezaetako eskolan euskaraz egiten zutela azaltzen digu. «Orduan Lezaetako eskola horretan, pentsa ezazu lau edo bost etxe bakarrik zirela eta 24 ume zirela. Ume horiek ez zekiten erdaraz. Kontuz ibili

behar genuen, inspektore bat etortzen bazen.»

Eskola horretan zortzi urte eman zituen, baina Lezaetako maistra izateaz gain, Araizko bailarako praktikante lana ere egiten zuen. Goizean joaten zen eskola horretara bizikletan. Han bazkaltzen zuen baserri batean eta goiz ematen zituen arratsaldeko klaseak. Ondoren Arribera joan eta praktikante lanari ekiten zion, injekzioak jartzera joaten zen baserrietara eta horrelako lanak egiten zituen.

Gero Gasteizera ezkondu zen. Senarra Iruñekoa du baina lana Gasteizen zuenez, 1960an joan ziren Gasteizera. Hemengo ikastola hasi zenerako bazuen seme bat 61ean jaioa.



Rafael eta Iban semeak Lezaetan, Araxes errekaen sorreran



Izaskun eta Rafael senarra ezkongaietan

Olabide ikastolaren sorrera

Gasteizen guraso batzuek euren umeei euskaraz ikastea nahi zuten, baina ez zekiten nondik hasi edo nola bilatu horretaz arduratuko zen pertsona. Guraso haiek garai batean Umandiren ikasleak izandakoak ziren, euskara ikasten ibilitakoak hain zuzen ere. Bazen beste irakasle bat, Don Ramon Narbaiza, euskalduna eta euskaltzalea, Diocesanetan klaseak emandakoa, guraso hauei ere klasea emandakoa. Guraso horiek bazuten giro euskalduna alde

askotatik. Guraso horiek Maria Teresa Urretarazurengana, hau da, Umandiren arrebarengana joan ziren. Hark ere ez zekien zehatz-mehatz nora joan eta nondik jo. Apaiztegi-
an bazegoen orduan apaiz bat, Don Inazio Oñatibia eta harekin hitz egin zuen Maria Teresak. Jon Oñatibia metodogilearen anaia da Inazio. Honelakoa izan zen Izaskun Arrue andrearen hitzetan ikastolaren sorrera:

Ordurako Gipuzkoan hasita zeuden ikastolak, beno ikastola izenik esaterik ez zegoen,



Ramon Narbaiza apaiz euskaltzalea ikastolako umeei Lehen Jaunartzean

baina hasita zeuden elizaren babespean, pisu hutsetan, eta horrela hasita zebiltzan. Gipuzkoako organizazio horretan Inazio Oñatibiaren anaiak eta, hor zeuden sartuta. Inaziok esan zion Maria Teresari bere anairekin hitz egingo zuela ea zer egin zitekeen. Han sartuta zebilen nire lehengusina bat, Mirentxu Moraiz, eta lehengusinak esan zien, nik badaukat lehengusina bat Gasteizen eta galdetuko diot eta hala 1963an hots egin zidan, eta esan zidan nola zen historia hau eta ea zer iruditzen zitzaidan han hastea, eta berehalaxe baietz esan nion.

Izaskun Arrue Gasteizko «Cercas Bajas» kalean bizi zen pisu txiki batean. Eta han gela txiki batean hasi ziren. «Gela ez zegoen hutsa eh, bazuen armairu bat eta lurrean moketa bat jarri eta hantxe hasi ginen» diosku Izaskunek garai haiek gogoratuz. Orduan Gipuzkoako ikastoletakoak tartean zeudela, Donostiara joan zen Karmele Esnalengana. Hark Artzain Onaren enparantzako pisu handi batean bazituen 80 ume han lurrean eserita. Horixe izan zen Izaskun Arrue andereñoak izan zuen lehen irudia, gerora Euskal Herriko hainbat



Ikastolako lehenengo ikasleak lehenengo ikasturtean, 1964ko otsailean

ikastolatan errepikatuko zena hain zuzen ere. Hortaz, 1963ko azaroa hantxe egin zuen. Izaskunek hilabete hura han lanean pasatzeko Pako Sagasti izeneko dentista ezagunak 3.000 pezeta eman zituen. Oso euskaltzalea zen gizon hau, nahiz eta euskaraz ez jakin. Han zebiltzan andereño guztiak Elvira Zipitriarekin nola irakatsi ikasitakoak ziren. Elvira Zipitria andereñoaren sisteman trebatzen ziren andereñoak.

Azaroa bukatu eta abenduaren 4an ekin zioten Izaskun Arruek eta lehendabiziko 14 ume haiek etxe hartako gelaxkan Arabako ikastolen historian, eta are gehiago euskararen irakaskuntzan, hain garrantzitsua bilakatu den orria idazteari.

Hasiera

Hasieran 14 ume zeuden eta hantxe egoten ziren lurrean eserita goizeko 10etatik eguerdiko 12etara eta arratsaldeko 3retatik 5etara. Bi ordu erraz egiten zituztela umeek aitortzen digu Izaskun Arrue andreak. Oso baliabide gutxirekin ikasten zuten ume haiek, idatzizkoen artean ez zuten ia bat ere ez eta bestelakoak ere apenas. Baliabide urri horien artean, gehien erabilitakoak txotxak eta botoiak ditugu. Txotxak, esate baterako, letra maiuskulak ikasteko erabiltzen zituzten, eta batuketak egiteko botoiak. Idatzizkoen artean, *Martin Txilibitu* ikasten zutenean esate baterako, *Xabierto* liburu ezaguna erabiltzen zuten.



Martin Txilibitu eta Xabierto

Goizetan sartu eta otoitz egiten zuten. Ondoren hiztegia ikasten zuten, eta kontatzen, abesten... Arratsaldeetan ipuinak, klasi-koen ipuinak, *Txanogorritxu* eta horrelakoak.

Hori dena ikasitakoan koaderno batzuk erabiltzen zituzten *Alvarez* deitzen zirela uste du Izaskun Arruek eta han problema simple batzuk eta azaltzen ziren. Hain gauza gutxirekin ere asko ikasten zutela talde hartako umeek esaten digu harro Izaskun Arrue andereñoak, *oso buruargiak* zirela.

Soldatari dagokionez, 4.000 pezetakoa zen. Maria Teresa Urrestarazu andrea arduratzen zen horretaz. Talde bat zegoen falta zen dirua jartzen zuena, baina modu anonimoan. Umeen gurasoek 125na pezeta ordaintzen zituzten. Horrekin, jakina, ez zen iristen soldata ordaintzeko. Hortaz, falta zena talde horretakoek osatzen zuten.

Hiru ikasturte egin zituzten Izaskun Arrueren etxeko gelan. Baina ordurako ezin ziren ondo moldatu. 32 ume inguru edo bazirenez, gura-



Ikasleekin Estibalizeko eskaileretan

soek pentsatu zuten batzar bat egin behar zutela eta Estibalizen bildu ziren aita Isidro Bastarrikarekin. Izan ere, hurrengo kurtsorako bazeuden guraso gehiago euren seme-alabak ikastolaratzeko prest, eta pentsatu zuten egunkarian toki bat behar zela iragartzea. Orduan ez zegoen esaterik ikastola baterako zela eta ikastetxe edo «colegio» edo horrelako zerbaitetarako zela jartzen zuen iragarkian eta berehalaxe lortu zuten toki bat. «Estibaliz etorbideko 26an alokatu ziguten etxe bat eta 1967ko urrian hasi ginen» azaldu digu Izaskunek.

Ikastolaren kokaleku berria

Ordurako 80 ume bazeuden eta hor hasi ziren andereño bi, Garbine Etxeberria segurarra eta biak eta Gabonetarako bazegoen beste talde bat egiteko adina ume. Beraz, Gabonetatik aurrera, hirugarren andereño bat ere hasi zen. Kurtso hori amaitzean zentroa legeztatu behar zela esaten hasi ziren. Izan ere, umeek 6 urte beteta zituzten eta «eskolatze kartila» behar zuten. Hori gabe umeak ez eskolatutzat jotzen ziren. Izaskunen etxean hasitako neska-mutilentzako kartilak



Eskurtsioa Estibalizera trenez



1.500 ikasletik gora ditu une honetan Olabide Ikastolak

premiazkoak ziren. Orduantxe jabetu ziren legeztatze behar horretaz, hantxe hasi ziren eskatzen zituzten paperak prestatzen. Baina legeztatzea etorri arte, umeak kartila gabe zeuden eta hori konpondu behar zen. Eskola nazional eta ikastetxe guztietara jo zuten zuzendariekin hitz egitera. Batzuek ez zuten ezer jakin nahi eta beste batzuk, euskaltzaleak izan arren, beldur ziren zerbait gertatuko ote zitzaien edo, eta ez zuten ezer lortzen. Ikasturtea ia amaituta eta ez zuten kartilarik eta egun batean joan ziren Samaniego eskolara eta hantxe sorpresa, hango zuzendariak

esan zien, «zuek gorde beharreko hizkuntza bat duzue eta nik zerbait egin ahal badut, pozik egingo dut». Gertaera hori gogoratzean *Jesus, hura poza!* ateratzen zaio Izaskun Arrueri. Horrela lortu zituzten neskentzako kartilak eta Adurtzako beste ikastetxe batean mutilentzat. Garai hartan hala egiten zen. Eskola horietako zuzendariak euren umeen izenak hartu zituzten eta beraien eskoletakoak balira bezala Delegaziora eskatu zituzten kartilak eta horrela lortu zituzten. *Hori konpondutakoan, Jesus!* berriro ateratzen zaio Izaskun Arrue andereñoari.

Ikastolaren legeztatzea

1968an lortu zen legeztatzea. Hori lan izugarria izan zen. Azkenean paper guztiak lortu ziren, baimen guztiak izan zituen ikastolak. Legez onartu zitzaion izena «Colegio Padre Raimundo Olabide» izan zen, ikastola hitza aipatzerik ere ez.

Izen hori jartzearen arrazoa galdetu diogu Izaskuni eta berak, azaldu digunez, zenbait izen pentsatzen ibili ostean, Jon Pertikak Olabide izena jartzea proposatu zuen eta denak bat etorri ziren. Izan ere, ez dugu ahaztu behar aita Raimundo Olabide, gasteiztarra eta euskalduna zela eta euskararen alde lan ikaragarria egindakoa.

Labur bada ere, merezi du Olabidek zer zela eta ekin zion euskara ikasteari gogoratzea eta euskararen alde eginiko lana orri hauetara ekartzea. Hogeita zazpi urte zituela Olabidek euskara ikastea erabaki zuen Arturo Campion nafarraren Gramatikan honako hitz hauek irakurri zituenean, «ordu euskal odola zainetan eraman eta euskaldunen hizkuntza ez jakiteaz lotsatu nintzen». Baita gogotik ikasi ere, Azkueren hiztegi guztia buruz zekiela zioten. Euskaldun berri honen lanen artean aipagarriena Biblia osoaren itzulpena da. Interesgarria izan daiteke Olabidek Euskaltzaindiaren sarre-
ra hitzaldian garai hartako eskolari buruz esandakoa gogora ekartzea:



Olabideren legeztatpena iragartzen duen berria

Euskerarentzat tokirik emen ez dago; eskola erderarena ta erderarentzat baizik ez da. Erderaz izan ezik, emen ezin diteke itzik entzun, ez egin. Euskal-usaiñik ere ez da emen zillegi.

Patxi Altunak Olabideri buruzko lan batean idatzitakoa gogoratuko dugu jarraian, merezi duelakoan:

Nola poztuko ote litzateke euskarak jasaten zuen erasoaldi bortitzenean hil zen Erraimun Olabide (1942an hil zen), bere Gasteizen bere izeneko ikastola handi bat eraiki dela ikusita! Zer zoramena, Euskal Herriko eskola askotan euskaraz irakasten dutela jakingo balu! Nolako bozkarioa, Elizen arteko Biblia eskuratuko balu eta mezak eta Orduen Liturgia euskaraz egin ahal izango balitu! Urte zail eta zigortuetan etsi gabe lan egin zuten Olabide bezalako gizonei zor handia diegu euskarak eta euskaltzaleok.

Makinatxo bat lan eta arazo

Lan eta arazo faltarik ez zuten izan garai hartan. Esate baterako, neskato baten aitak, Angel Aranzabalek, alegia, bazuen kartel bat eta hark ekarri zuen eta han «Ikastola» hitza jartzen zuen. Orduan Gobernutik karta bat etorri zen eta beraiek ez zekitela izena aldatzeko asmorik zutenik. Izena aldatzeko baimena eskatu behar zela eta bitartean letreroa kendu behar zela jartzen zuen eskutitzean. «Ai, ai, ai, hura pena! Hortxe joan ziren gure letrak!» kontatzen digu Izaskun Arruek.



Estibaliz etorbideko etxean, «ikastola» jartzen zuen errotulua kentzeko agindua jaso gabe zeudenean

Arazoak arazo, garai haiek samurtasun handiz gogoratzen ditu Izaskunek:

Dena zen arazoa, baina gauzak txikiak direnean, oso gauza polita izaten da ezta? Orduan guraso guztiak ibiltzen ziren ikastolako lanak konpontzen. Norbait elektrizista bazen, hantxe ibiltzen zen argiak konpontzen. Beste bat arotza bazen, mailuak eta hartu eta han ibiltzen zen arotz lanetan. Guk garai hartan ez geneukan ezer, eta dirurik ere ez. Berehalaxe gurasoek batzorde bat antolatu

zuten eta denak prest zeuden gauzak egiteko, eh! Eta batzorde hartan astelehenero biltzen ginen eta hantxe azaltzen ziren arazoak bata bestearen atzetik. Ni gogoratzen naiz mahai guztiak izaten zirela desberdinak, aulkiak... baina pozik, eh! Bazegoen guraso bat arbel guztiak egiten zizkiguna. Gero uda ailegatzen zen eta beti bazen zerbait konpondu beharra, han ibiltzen ziren pozik. Ez zuten sekula fakturarik pasatzen. Zenbat aldiz ibiltzen ziren arratsaldeko zazpietatik aurrera lan eta lan.



Olabideko andereño taldea

Beste arazo handi bat diruarena zen. Dirua behar eta ez zen dirurik. Orduan «bazkide babesleak» direlakoak egin ziren. Hainbateko txiki bat eman bakarrik ez, mordoxka batek diru mordoxka ematen zuten eta batzuek asko. Baina isilean, han ez zegoen izenik jakiterik. Hori guztia gurasoek konpontzen zuten.

Halako batean gurasoek ikastola berri bat egi-tea erabaki zuten. Horrela kontatzen digu andereñoak: «nik ez dakit nola sartu ziren horrelako gauza batean, baina sartzen zarenean azkenean lortzen duzu». Dirua bilatu, kooperatiba egin eta horrela ikastola berria eraiki zen 1973an.

Lehenago azaldutako arazoez gain, beste lan handi bat andereñoak aurkitzea izaten zen. Udan herriz herri ibiltzen ziren eta herrietako apaizengana jotzen zuten eta azkenean aurkitzen zituzten, batetik eta bestetik ibili ondoren lortu ere. Noski, behar adina andereño tituludunik ere ez zen izaten. Beraz, euskaldunak hartzen zituzten, baina haiek ez zuten Delegazioan azaltzerik, ez baitzuten titulurik. Orduan, ume batzuen amak maistrak zirela baliatzen ziren. «Gero inspektorea azaltzen zen, urtean behin edo, eta hura beldurra! Baina, erraz pasatzen ziren» gogoratzen du Izaskunek.



Batuaren aurkako argitalpenak

Ikastola utzi zuen unea

1973an Lasarten hasi ziren ikastola berrian. Han hasi zirenerako euskara batuaren aldeko erabakia hartua zuen Euskaltzaindiak. Garai hartan istilu handiak izan ziren toki batzuetan batua zela eta ez zela. Olabide ikastolan ere ez zen eztabaidarik falta izan. «Hemengo ikastolan ere izan genuen istilu handi-handia eta hamaika eztabaida izan ondoren, ikastolako batzordeak erabaki zuen batua sartu behar zela. Batua sartzea erabaki zutenean, nik ikastola utzi nuen» aitortu digu Izaskunek. Bera bakarrik atera zen. Zenbait tokitan esan izan da Izaskun Arruek atsedena hartu zuela, baina hori ez dela egia argi eta garbi gera dadila nahi du, berak ez zuela inolako atsedetik hartu. Batuaren kontra zegoelako irten zen. Horrela diosku berak, «baina hori ez da nik asmatutako gauza bat. Ni nengoen Don Manuel Lekuona bezala, Labaien, Lino Akesolo... Euskaltzaindiako erdiak batuaren kontra zeuden eta hor izan ziren hamaika sesio. Jende asko zegoen batua horren aurka».

Orduan, Osakidetzan eskatu zuen lana. «Ni praktikantea nintzen, ATS esaten da orain. Abetxukoko anbulatorioan hasi nintzen lane-

an eta hamasei urte egin nituen hor jubilatu arte» aitortzen digu Izaskun Arruek. Baina bere lana ez zen horretara mugatzen, euskara irakasteari ez baitzion sekula utzi.

Abetxuko auzoko anbulatorioetik eguerdiko 12etan ateratzen zen eta Magisteritza eskolara joaten zen ikasle eta irakasleei klaseak ematera. Bazkalostean Seminaria joaten zen. Ikasle gehienak teologia ikasleak ziren. Han egin zituen hamabi urte.

Arratsaldeko 6etan, berriz, Samaniego eskolara. Patuaren ironia dela dirudi. Izan ere, eskola horretako zuzendariari esker konpondu zuten urte batzuk lehenago, askoz ere garai latzagoetan, eskolatze kartilaren arazoa. Han bertako irakasleei ematen zizkien euskarazko klaseak. Peritoen eskolara ere joaten zen astean zenbait alditan. Hortaz, txandakatu egiten zituen bi eskoletako klaseak. Dena dela, lan jarduna amaitu gabe zuen oraindik. Arratsaldeko 8etatik aurrera beste talde bati ematen zion klasea Udaberria euskarazko klaseak.

Guztietan Jon Oñatibiaren metodoa eta Umandiren gramatika erabiliz ematen zituen euskarazko klaseak.



Arriben aipaiztegiko euskara ikasleekin

Nortasun handiko emakumea

Nortasun handiko emakumea dugu Izaskun Arrue, euskaltzalea eta fededuna, langile fin saiaturia eta bere bizitzan zehar erabaki gogorak hartu behar izan dituen. Bere bizitzari errebaso bat eginez gero, emakume nekagaitzaren irudia datorkigu burura.



Senarra eta bi semeak: Rafael eta Iban

Ikasketak amaitu bezain laster ekin zion lanari. Ikasketei dagokienez ere, bi karrera egin zituen batera, magisteritza eta erizaintza ikasketak, hain zuzen ere. Bere bizitzan zehar ere behin baino gehiagotan egin ditu bi lan batera. Horrela, maistra eta praktikante lanak eginez ekin zion bere lan ibilbide luzeari Nafarroako



Ama eta bi semeak Tolosako igerilekuan

haran txiki politean. Gasteizen zelarik, andereño lan eskergaz gain, ikastolak zituen hamai-katxo arazo konpontzen ere aritzen zen gurasoekin batera. Hasierak edozein lanetan neketsuak izaten badira ere, are gehiago Gasteizko garai hartako giroan.

Ikastolatik alde egin zuelarik, atsekabe handiz gainera, praktikante lanak egiten zituen goizez anbulatorio batean eta arratsaldean eta gauaz euskara klaseak ematen apaiztegian zein zenbait ikastetxetan.

Berak aitortzen duenez, ezin zuen ikastolan jarraitu batuaz klaseak ematen, bere kon-

tzientziari iruzur egitea zen. Ikusten denez, oso pertsona kontsekuentea izan da bere bizitza osoan, zimurrik gabekoa. Horrezaz gain, jenio biziko emakumetzat jo dezakegu. Horren adierazgarri Olabide ikastolan euskara batuan irakastea erabaki zuten garaia. Berak, pena handiz aitortzen digunez, makinatxo bat eztabaida eta sesio izan zituen gai horren inguruan ikastolako batzordeko kideekin. Ez zen bera euskara batuan irakasteko aurka zegoen bakarra garai hartan, baina besteek azkenean amore eman zuten, batzordekideen erabakia onartu zuten; Izaskunek, ordea, ez, bereari eutsi zion eta ondorioz, halabeharrez, berak hainbeste maitatu zuen



Izaskun, senarra eta bi semeak

ikastola utzi behar izan zuen. Oso gertaera mingarria izan zen haren bizitzan eta nabaritzen zaio, garai haiek gogora ekartzeko eskatzen diogunean.

Dena dela, ez zuen etsi eta euskara irakasten jarraitu zuen.



Izaskun bi semeekin

60 eta 70eko hamarkadak: Euskararen etorkizunerako giltzarri

Ikastola sortu zeneko giroa gogora ekartzen badugu, euskal gizartea lozorrotik esnatzen hasita zegoela sumatzen da. Euskararen aldeko jarduerak kaleratzen hasten dira, gero eta nabarmenagoak dira. Aurreko ahalegin isolatuen aldean, gauzak antolatuagoak azaltzen

dira. Gerra osteko belaunaldi gazte berria ere euskararen alde lan egiteko prest agertzen da. Ez da kasualitate hutsa ikastola garai hartan sortu izana, euskalduntze eta alfabetatze saioekin batera. Izan ere, aurretik hazia ereinda zegoen, baita Araba eta Gasteizen ere, nahiz eta salbuespenak salbuespen, Euskal Herriko lurralderik erdaldunduena izan. Bidegileen bilduma honetan Izaskun Arrue



Bilobaren lehen jaunartzean familiaz inguratua

sartu badugu ere, asko izan ziren garai hartan bidegile, era anonimoan askotan, beren burua ezagutzera eman gabe, ahal zuten neurrian laguntzen. Euskarari laguntzearren arriskuan zeudela jakitun egonda ere, ez zuten etsi. Jende horren ahaleginari esker, urte batzuk geroago arabar euskaldunok ez gara hain arrotz sentitu gure lurralde honetako hiriburuan. Izen batzuk aipatu ditu Izaskun Arruek eta beste batzuk esan barik gelditu dira, baina denen artean egindako lan isilari esker, ezagutu dugu egoera hobe 80ko hamarkadatik aurrera gehienbat. Egia da une honetan euskarak Gasteizen ez dituela oso momentu onak bizi. Udaletxean, esate baterako, euskara ia osorik ezabatu dute karteletatik zein edozein adierazpide grafikotatik. Sinbolikoki baino ezin izan dutela ezabatu adierazi beharko genieke eta etorriko direla garai hobeak.

Berrogei urteko ikastola

Ibilbide luzea egin dute Olabide Ikastolakoek eta hasierako sasoiekin erkatuz, ikastola asko hazi dela nabarmendu daiteke. Ikastolako oraingo zuzendaria, hau da, Iñaki Arriola, Cercas Bajas kaleko gelatxo hartan Izaskun Arruerekin ikasitakoa dugu. Iñaki Arriola ikastolako zuzendariak adierazi digunez, oso ikastola handia da oraingoa eta harremanak ez dira lehengoak. Kontuan izan behar da 1.500 ikasle eta 100 langile baino gehiago ari direla lanean une honetan aurtengo berrogei urte beteko dituen ikastola honetan. Argi dago, beraz, harremanak ere ezin direla izan lehen bezain beroak. Nahiko giro hotza da oraingoa Iñaki Arriolaren ustez. Elkar ezagutzea ere ez omen da erraza kasu batzuetan. Dena dela, aurreko sasoiekiko lotura ez da erabat galdu, oraindik jarraitzen dute hasierako garaietako



Olabide ikastola ez ezik
Euskal Herriko ikastola asko ere 60 eta 70eko
hamarkadan sortuak dira

andereño batzuek eta horiekin batera, euren ikasleak izandako beste zenbait, orain euren lankide bihurtu dira.

Argi dago ingurune erdaldunean lan egiteak euskara maila baldintzatzen duela. Arazo hori oso nabarmena da Gasteizko eta Arabako eskualde gehienetan. Horrela, Olabiden ikasleen laurdena baino ez dela etxetik euskalduna azaltzen digu zuzendariak. Hortaz, etxetik euskaldunak ez diren ume askok ez dute hain euskara maila ona eskuratzen.



Ikastolako hasierako ikasleentzat euren bigarren amatxo izan da Izaskun Arrue

Ikastolaren lehen urteak ikasle ohi baten ikuspegitik

Bestalde, Iñaki Arriolari Izaskun Arrue andereñoaren izena aipatu diogunean bere bigarren amatxo izan dela azaldu digu. Hiru urtekin hasi zen eta egun osoa ematen zuen berarekin gainerako umeekin batera, eta euren andereño bakarra izan zen Iñakiren kasuan, hamar urte bete arte. Han ez zegoen orain bezala, ingeleseko irakaslea, musikako irakaslea, soinketako irakaslea... bakarrak egiten zituen lan guztiak. Ikastolatik irtetea sekulako aldaketa izan zen Iñakirentzat eta ez hizkuntzagatik bakarrik.

Garai haiek gogoratuz, arbel txikitxo beltz bat marko eta guzti datorkio burura. Garai hartako askok bezala *pizarrin* delakoa erabiltzen omen zuten zenbakiak eta letrak idazteko. Horrezaz gain, oso polita iruditzen zitzaion *Martin Txilibitu* letrak ikasteko erabiltzen zen kartilatxoa, Izaskun Arruek berak ere aipatu diguna. Iñakik oroitzen duenez, hasieran letra errazenak ikasten ziren eta TZ eta TSra iristeak ordurako oso trebea zinela suposatzen zuen.

Oso giro ona zuten euren artean. Bere adinekoak hiru besterik ez ziren eta taldetxoa osatzen zuten. Jolasteko orduan, kalera jaitsi eta aldamenean zegoen karrajoan jolastu behar izaten zuten. Gogoan du, era berean, autobus berde zaharrean eskurtsioak egiten zituztela Estibalizera, oso ondo pasatzen omen zuten.

Garai politak ziren, oso zoriontsuak izan ziren. Oso ondo konpontzen ziren umeak euren artean eta noizean behin familia eta guzti elkartzen ziren denak.

Kaleko giroaz galdetzen diogunean ea ez ote zuten ezer sumatzen, zerbait debekatua egiten ari zirela edo horrelako zerbait. Iñakik komentatzen digu bazekitela ezin zirela ume

guztiak batera joan Izaskunen etxera. Gurasoak txandakatu egiten ziren umeak batera ez bidaltzeko. Aurretik euren artean ados jartzen ziren eta ordu desberdinetan joaten ziren. Bestalde, gogoan du Estibaliz etorbideko etxean Francoren argazkiak gordeta zituztela eta inspektorea joaten zenean jarri behar izaten zituztela.



Izaskun Arruerekin egindako urteak modu berezian oroitzen dituzte bere ikasle ohiek

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Izaskun Arrue*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2003ko uztaila

Ale-kopurua: 2.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde

Fotokonposizioa: Gráficas Varona, S.A.
Polígono «El Montalvo», parcela 49 - Salamanca

Inprimaketa: Gráficas Varona, S.A.
Polígono «El Montalvo», parcela 49 - Salamanca

ISBN: 84-457-1973-4 (Lan osoarena)
84-457-1977-7

L.G.: S-797-2003